




Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
183. zkia . 2006ko otsaila



4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarriketa: Piru Taldea

16-17. Txiste lehiaketa

24-25. Bordari eta Satarka

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Urtarrileko demografia

| JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



gizarte ekintza
obra social



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea • Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

TXISTE GRAFIKOEN LEHIAKETA



Aurreko zenbakian azaldu genuen Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa noiz eta nola sortua izan zen eta ordutik hona nolako bidea egin duen. Oraingoan Txiste Grafikoaren Lehiaketa aipatuko dugu. Lehiaketa hau 1992an sortu zuen Euskara Batzordeak, marrazkigintza eta humorea elkarrekin uztartuta bultzatzeko asmoz, beraz aurtengoa XIV. edizioa izan da.

Hasiera batean bi mailatan banatuta zegoen (18 urtez gorakoena eta behekoena), baina epaimahaien gomendioz hirutan zatitu zen: A maila 16 urtez gorakoena, B maila 12 urtetik 16 bitartekoena eta D maila 12 urtez behekoena.

Partaideen dohain bereziak eta sormena bultzatzea du helburu lehiaketak eta sariak emateko garaian hiru ezaugarri hartzen dira kontuan: marrazkiaren kalitatea, umorea eta euskararen zuzentasuna.

Garai batean honelako lehiaketa gutxi bazeuden

ere, gaur egun komiki lehiaketa ugari antolatzen dira, hala ere Hondarribikoak berezitasun bat badu, istorio osoa bineta bakar batean esan behar izatea, "flash" moduan, eta horrek bere zailtasuna du adi-tuen esanetan.

Lehiaketak arrakasta handia izaten du urtero, eta aipatu behar da gaztetxoek kasuan irakasleek eragin handia izaten dutela, beren ikasleak parte hartzerantz bultzatzen dituztelako.

Aurten aurkeztutako lanak (guztira 63) hamabost egunez jendaurrean erakutsi ondoren, otsailaren 4an eman ziren sariak ekitaldi xamur eta alai batean, bertan, gazte, guraso, irakasle eta marrazkilari ugari bildu zen. Hasiera batean gaztetxoei kosta zitzaien marrazkilari profesional ospetsuen ondoan bat-bateko lanean hastea, baina azkenean, hango errotulagailuak eta panelak eskas izan ziren artista haiek guztiek beren erakustaldirako aukera izan zezaten.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK OTSAILEAN ETA MARTXOAN

5- ERAUSKIN San Pedro, 22943 641018
12- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso943 642191
19- IRAOLA San Pedro, 5943 641027
26- FIZ Sokoan943 644316
5- ALMAJANO Mendelu, 26943 640068
12- ALAMEDA Harresilanda, 9943 645798
19- ERAUSKIN San Pedro, 22943 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK OTSAILEAN ETA MARTXOAN

5- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212
12- ARRATIBEL Mendelu auzoa943 641975
19- GARMENDIA Portuan . . .943 641136
26- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212
5- ARRATIBEL Mendelu auzoa943 641975
12- GARMENDIA Portuan . . .943 641136
19- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212

Ficoba Erakustazokak hazkunde joera mantendu du 2005ean

Ficoba Euskal Kostaldeko Nazioarteko Erakustazokak 1,2 milioi eurotako diru-sarrerak erdietsi zituen 2005ean, eta 6,5 milioi eragin zituen inguruan, jasotako 75.000 bisitariei esker, 2004ko emaitzekin alderatuz %3,14 bat gehiago. Eta azoka kopuruan zein erabilitako metro karratuetan ere gorakada nabarmena nabaritu da.

Iñigo Marquet, erakustazokaren zuzendariak azaldu duenez, "Emitza ekonomikoei dagokienez, fakturazio orokorra 1,2 milioi eurotara igo da. 672.000 euro, esplotazio gastuak izan dira eta milioi erdia, berriz marjina gordina". Zentzu honetan, aurtengo ekitaldiaren emaitzekin, Ficoba errentagarria izan daitekeela frogatu dutela azpimarratu du Marquetek.

Era berean, erakustazokaren aktibitatea inguruko ekonomiarentzat ongarria dela dirudi. Ficobako zuzendariak prentsaurrekoan helarazi zuenez, "Gure diru-sarrerak 1,2 milioi eurotakoak izan badira ere, erakustazokak inguruan eragindako aktibitateak 6,5 milioi euroko negozioa sortu du". Kopuru honetatik, Bidasoa eskualdean eta Lapurdin 5 milioi gelditu omen dira. Ficobak jaso dituen 75.000 bisitarien %60a Gipuzkoatik etorriak izan diren arren, %24a arabarrak, bizkaitarrak eta nafarrak izan dira. Eta beste %11 Akitania eta Atlantikoko Pirinioetakoak gehienbat. Horrela, 2005ean antolatutako hamar azokek sortutako aktibitate ekonomikoaren etekinak, garraioan, ostalaritzan eta zerbitzuetan banatu da.



FICOBako irudi bat

Eskualdea saharauientzako elikagaien karabana abiatu da



Saharako zenbait haur urtero etorri ohi da udan bi hilabete pasatzera

Hondarribia eta Irungo Udaletxeek, Sahara herriaren aldeko elikagai karabana aurrera eraman ahal izateko kanpaina berri bat burutu dute. Tadamun gobernuz kanpoko erakundearekin lankidetzarekin.

Laugarren urtez jarraian, Saharako herriari begira elkartasun janari bilketa antolatu dute gure eskualdeko Udaletxeek. Saharako herri honekin elkartasun ekimen hau errepikatzea ezta arraroa, aurreko urteetan erdietsitakoa kontuan hartzen badugu.

2005eko kanpainan 14 tonako karabana biltzea lortu zen eta aurreko kopuru hau gainditzea espero dute antolatzaileek. Bildutako guztia behar den tokira garraiatzeko eta banaketa lanetarako, udalek Tadamun gobernuz kanpoko erakundearekin lankidetzan ari dira. Izan ere, hauek Frente Polisarioarekin batera, eskualdean jasotako material guztia herri behartsu honi iristea bermatuko dute.

Aurreko zifra hauek mantendu dira, eta urtarrean egingutako lanaren ondoren, otsailaren hasieran hegazkin bidez bidali ziren jasotako ia 15 elikagai toneladak Sahara aldera.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kirol sailak Amuteko kirol gunearentzat proiektua egingo du



Amuteko kirol zonaldearen irudi bat

Amuteko kirol gunea orain dela urte batzuk ez zen erabiltzen eta abandonatuta zegoen. Horregatik, Kirol sailak proiektu bat egin du, 522.448 euroko aurrekontutatik hamabi mila euro gorde du proiektu honetarako.

Azken urtetako herriko kirol instalakuntzen hobekuntzak kiroldegian eta Hondartzen kanpo zona baten sorketa izan dira. Azken jarduera 250 metroko atletismo pista jartzea izan da, honen barruan belar artifizialez eginiko zelai bat dagoelarik. Instalakuntza honekin, Hondartzako kanpoko aldeko bigarren fasea bukatua geratu da. Geratzen den jarduera kiroldegiko futbol zelai ondoan dauden aldagelak aldatzea da.

Amuteko kirol zonaldea auzoaren lehen etxebizitzaren atzeko aldean dago. Duela hogeit bat urte eraiki ziren bertan harrizko futbol zelai bat, futbito beste bat, tenis eta saskibaloikoak ere bai. Udalaren asmoa berriztapen integral bat egitea da, kontuan izan behar baita Amute asko zabaldu den auzo bat dela. Hala ere, aurrenik auzoa azken hileotan jasaten ari den hobekuntza lanak amaitu behar dira.

Emeki Elkarteak mairuak antolatuko ditu Inauterietan

Otsailaren 25ean, Inauterietako larunbatean, goizeko 9:30etan, Sainduen Gaztetxean elkartzeko deialdia egin du Emeki Elkarteak. Handik taldea Montañenea baserrira joango da, eta handik han auzoz-auzo ibiliko dira, Gornuz-Montaña, Zimizarga, eta Akartegi-ko baserrietatik barrena.

Eraman beharreko jantzia oso erreza da, etxeko arropak zaharrekin egindakoa, txapela buruan, abarkak eta aurpegia estalita inork ez ezagutzeko ezagutu. Trikitixa doinuen laguntzaz, goizean zehar dantza egingo dute eta nola ez, indarrak hartzeko goiz erdian hamaiketako egin ohi da.

14.00ak aldera Alkartasuna Elkartean otordua egiten da baserrietan jaso denarekin, Nicasio Ceberio arduratzen delarik bazkaria prestatzeaz. Emeki Elkartetik dei egiten zaio nahi duen edonori Mairuekin parte hartzeko



Mairuak baserriz-baserri ibiltzen dira Inauterietan

Monica Sagües-ek irabazi du inauterietako kartel lehiaketa

**11 lan aurkeztu dira aurtengo lehiaketara*

Otsailaren amaieran ospatuko diren Inauteriek irudia izango dena jadanik ezagutzen da. Kultura Departamentuak deitutako lehiaketara 11 lan aurkeztu ziren, eta denen artean irabazlea Monica Sagües izan da. Berak aurkeztutako lana, "Mairuak" izenekoa, kolore biziz osatutako margolan bat da, egun hauetan hain esanguratsuak diren koloreak hain zuzen. Bertan agertzen diren irudiak gure herriko ihauteri herrikoietan inspiratu dira (Lantz, Ituren, adibidez).

Epaimahaia pertsona hauek osatu dute: Jabier Sagarza-zu, Aiert Alonso, Xabier Gezala, Kultura zinegotzia eta Marilis Goñi, Kultura teknikaria eta idazkaria.



Inauterietako kartela, "Mairuak" izenekoa.

Erdi Aroko hirien zirkuitoan Hondarribiak sartu nahi du

Hondarribiko Udala-ren helburua Erdi Aroko hirien zirkuitu turistikoan parte hartzea da. Horregatik, orain dela hilabete batzuk, beste herrialdeetan egiten ari diren bezala Udala lanean ari da.



Harresiaren irudi bat

Joan den urrian izan zen lehen bilera. Han Biasteri, Arabako udalerria, Nafarroko Lizarra, Aragoiko Sos del Rey Católico eta Guadalajara, Sigüenzak parte hartu zuten.

Oraindik ez da jarraibiderik jarri baina Aitor Kerejeta eta Xabier Gezala zinegotziek esan zutenaren arabera, "elkarte bat sortu nahi da Espainia, Portugal eta Frantzia zehar dauden Erdi Aroko Udalerriak bertan sartzeko. Ekainerako zirkuito bat osatuta izan nahi dugu"

Proiektu honetako egileek Europako Batzordean ordaindutako ekintzen zerrendan sartzeari nahi dute. "Kontuan izan behar da, Portugaleko eta Frantziako Erdi Aroko udalerriekin lana egingo dela eta orduan Europa Batasuneko Interreg 4 programaren bidez laguntza izatea errazagoa izango dela.

Erdi Aroko hirien elkarte honetan sartzeko baldintza batzuk bete behar dira, adibidez, biztalen kopuru zehatza izan. Elkarte honetan sartzeko Hondarribia baldintza minimoak betetzen ditu.

Urteko azken hilabetean Hondarribia Erdi Aroko hiriei buruz egongo den kongresuaren egoitza izan da. Ekimen hau Arkeolanen eskutik izan da.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

**NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO**

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

BAKARRIK

3,58.-euro

foto FRANAN

Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Foru Aldundiak aireportuko pista luzatzeko proposamena egin du

Gipuzkoako Foru Aldundiak aireportuko pista luzatzea proposatu du. Proiektu berri honetan, Mendeluko etxebizitzek bertan jarraituko lukete, lugorria eta hainbat pabiloi baliatuko lituzke eta. Egitasmo berri honekin, PP eta PSOE alderdien proiektuei aurre egin nahi die, beste biak Hondarribiko etorkizuna kolokan jartzen omen dute.

Espainiar Gobernuak, aireportuko pistaren luzatze proiektua atzera bota zuen duela hiru aste. Azken urteotan hondarribiarren buruhausteetako bat izan den auzia amaitua zegoela zirudienean, mendelutarrek proposamen berriei aurre egin behar diete orain.

PSOEk proiektuan segurtasun neurrietarako metroak pistaren muturrak baliatuz lor daitezke. Egun 1754 metro baliagarri ditu aireportuko pistak, eta sozialisten proposamenak aurreikusten du 1604 metrora igarotzea hegazkinen aire-ratzerako. Eta lurreratzerako berriz 1454. Honek esan nahi du, hegazkinak aireratzeko baliatuko luketen pistaren parte bat, lurreratzerakoan segurtasun zatia bilakatuko litzatekeela.

Koldo Azkoitia, aldundiko diputatuak adierazi duenez, "Foru Aldundiak ez du proposamen berri hau onartu. Pistaren nolabaiteko murrizketa honek, turboerreaktore hegazkinen eragingarritasuna arrisku larrian jartzen baitu". Gaur egun, Madrilgo hegaldialdiak hegazkin mota hauekin egiten dira. Zehazki, McDonell Douglas 87 eta 88 eta 319 Airbus modeloak.

Foru Aldundiak luzatutako proposamena, berriz, Amute Kostako erreka zubi baten bidez zeharkatu eta etxebizitzak ikutu gabe, Mendeluko lugorriak aprobetxatzea.



Hegazkin bat lurra hartzen aireportuan

Zalantza artean abiatu dute kostera berria Itsas Etxean

Arrantzaleen Kofradiako sei legazketari hasi dira aurtengo kosteran lanean. Europar Batzordeak ezarritako geldialdi biologikoa zela medio, ezin itsasoratuz egon dira orain arte arrantzaleak. Legatzaren kosteran abiatu, baina antxoak kanpainari begira daude arrantzaleak, arazo biologikoen eta lan-baldintzen beldur baitaude.



Kofradiako arrantzaleak itsasora atera dira.

Europar Batzordeak inposatutako geldialdi biologikoa amaitu eta otsailaren hasieran ekin diote legatz kosterari Hondarribiako arrantzaleek. Bien bitartean, martxoaren 1ean hasiko da antxoaren kanpaina, berdelari ekin ondoren.

Euskal arrantzaleak ez daude europar erakundeak hartutako erabakiekin batere konforme. Honela adierazi du Jaime Tejedor, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Elkarte presidentea: "Gure interesen kontrakoak eta Frantzia eta Iparraldeko arrantzaleen aldekoak izan dira hartutako erabaki gehienak". Halatan, premia ekonomiko eta espezien biziraupena bermatzeko egin beharreko urratsen arteko eztabaidetan dabilta, Kofradiak, Europar Batasuna eta Arrantza ministerioko arduradunak.

Martxotik ekainera bitartean egiten da antxoaren kanpaina eta, Tejedorrek dioen moduan, kostera osoko diru-sarreraren %40 bat jaso ohi du garai honetan arrantzontzi bakoitzak. Beraz, arrantzaleen urrea izan da antxoaren historikoki. Hala da, historikoki.

Hondarribiko arrantzaleek hasi berri duten legatz kanpaina, edo berdelarena, oparoa izanik ere, denboraldiko lehen itzulia baizik ez dute horrenbestez beteko. Antxoarena dator gero. Eta estutasunak iritsiko dira haren eskutik, bigarren itzulian.



**BAR
HONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Jatetxea
txantxangorri

San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Tabakoaren aurkako legeak ez du istilurik sortu

Urte berriarekin batera, Espainiar Gobernutik bultzatutako Tabakoaren Kontrako Legea indarrean jarri da, eta erretzaileek lantokietan, toki-publikoetan eta hainbat ostatutan debekaturik dute erretzea.



Zenbait tabernak, barneko aldea erretzaileentzat gorde dute eta terraza ez erretzaileentzat dute erretzea.

Urtarrilaren lehenean abiatu zen lege berria, eta aldeztatik herritar guztien ahotan beste ezer ez bazegoen ere, azkenean ez da inolako istilurik sortu. Tabakoaren Kontrako Legedia aztertuz, eta erretzaileek zailagoa dute zigarro bat edonon piztea. Izan ere, lege honen arabera, etxeetan, kalean eta horrela erabakitzen duten zenbait tabernatan salbu, erretzea debekatzea dago.

Hala ere, legearen aplikazioa malgutasunez egin da lehen egunetan. Tabernari askok diotenez, Espainiar Gobernuak legea onartu eta aplikatu du, baina ostatuko jabeek pasa die ardura guztia. Horrela gauzak, 100 metro karratu baino gutxiago dituen, erretzea badagoelako kartela ipini dute. Izan ere, bezero erretzaileak galtzeaz gain, tabakoa saltzea eragotziko zaie legea aplikatzen duten ostalduak, eta honek esan nahi diru mordoa galduko dutela. Bistan denez, tabakoa erretzea zailagoa bilakatu bada, produktu hau erostea ere ez da erraza izango. Esate baterako, lehen tabakoa saltzen zuten hainbat tokitan debekatua dago orain saltzea. Horrela, gasolindegia, hainbat dendak, supermerkatuak edota ez erretzaileentzako diren tabernak eta jatetxeak ere, ezin izango dute orain tabakoa arekin negozio egin.

Hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzak ere espainiar Gobernu zentralari aurreikuspen gabezia egotzi dio. Izan ere, Jaurlaritzak ez baitaki zein sailek kontrolatu beharko dituzten tabakoa eta erretzaileen gora-beherak.

Topagune berri bat proposatzen da Alde Zaharrean

*Egin-Egon Toki proposamen guztiei irekia dago

Prebentzio Komunitario zerbitzuak hondarribiarrak topatzeko eta erlazionatzeko toki berri bat sortu du. "Egin-Egon Toki" izeneko, ekimenak proposatzeko eta gauzak egiteko edo biltzeko erabilia



Egin-Egon Toki Alde Zaharrean kokatzen da

izango da, bai eta beste ekintza batzuk garatzeko plataforma bat ere.

Publikoa eta doakoa da, harrera librea da eta proposamen guztiei irekita egongo da. Kale Nagusiko 7. zenbakian kokatua, Prebentzio Komunitarioaren zerbitzuko hezitzaileek kudeatuko dute, bai eta bolondresak ere. Lan artistiko eta kulturalak egiteko erabilia izan daiteke eta beste batzutan, kafe baten inguruan jendea hurbiltzeko.

Une hauetan, 7 pertsonen lan egiten dute ArteBide IV izeneko lan proiektu batean ("INEM-Corporaciones Locales" delakoak finantzatuta) Egin-Egon Toki leku atsegin eta eroso bat izatearren.

Baratza komunitarioa

Proiektu honekin loturik, beste bat daukagu ere, "Baratza" izeneko. Nahi duenarentzat irekia, bolondres, nerabe eta 100 urte arteko helduei zuzentzen baitzaie. Ikasle eta ikas-tetxeentzat ere zabalik dago.

Une hauetan proiektuan bost pertsonen lan egiten dute, lurra prestatzen ari direlarik. Baratzetik jasotzen dena gero Egin-Egon Toki gunera eramango da han erakutsi ahal izateko.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Kirol eremuan Euskararen indartzeko plana, udalaren laguntzaz

Hemendik aurrera, Hondartza kiroldegia eta Arraun Elkartearen erabilera egingo den plan baten protagonistak izango dira. Ekimen hau 2005-2008 urtetarako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian kokatzen da.

Azken hilabete hauetan, bi gune hauetan datu bilketa sakon bat egin du Udalak, Siadeco enpresarekin, euskararen egoera jakiteko helburuarekin.

Kattalin Nobliak, Euskara zinegotzia, azaldu zuenaren arabera, euskara asko erabiltzen da monitoren eta kirolarien artean, jada, baina hainbat euskara menperatzen duten monitoren portzentaia eta beraien lanean erabiltzen duten artean desoreka dago.

Egoera hau hobetzeko asmoz eta euskarak eguneroko jardueretan presentzia handiago izan dezan, Hondartza kiroldegia eta Arraun Elkarteko erabiltzaileen artean sentsibilizazio programa bat burutuko da, leku hauetan jende asko ibiltzen baita. Bi guneetako monitore eta entrenatzaileekin lan egingo da, lehendabiziko fasean. Hizkuntz paisaia, monitorek erabiltzen duten materiala, ikastaroetan baliatzen diren

hiztegiak, etabar pixkanaka eskualduntzea da asmoa.

Ekimenaren helburua ahalik eta pertsona gehienek euskaraz kirola egiteko aukera izatea da. Prozesu mantso eta etengabekoa dela jabetzen dira eragile guztiak eta parte hartzaile guztien motibazioa dute baldintza nagusia.



Hondartza kiroldegia izango da ere Euskara Biziberritzeko Plana burutuko den gune bat



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 4 behea
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Bidasoa bailara Madrilgo FITUR turismo azokan



Euskadiko erakustokia FITURen

Urtero urtarilaren azken astean gertatzen den beazala, Madrilgo FITUR azoka ospatu da. Txingudiko bailara bertan izan da, eta aurten nobedade gisa, Hondarribia Erdi Aroko Hirien Sarean barneratzea izan dute helburu nagusia.

Hondarribia, Irun eta Hendaia herriak, eskaintza turistikoa bakar modura aurkeztu dira. Txingudiko erakustokia, Eusko Jaurlaritzak antolatutakoaren barne dago aurtengo edizioan. Baitatik joan ziren erantzule politikoak, Bidasoa Bizirik-eko kontseilari den Guillermo Echenique, eta Hondarribiko zinegotzia eta alkateordea diren, Xabier Gezala eta Aitor Kerejetak osatu zuten ordezkariak.

Europa mailako turismo azokarik esanguratsuenak da. Horrela, erakustokien artean, ehunetik hogeiki besterik ez dira Estatu espainiarreko enpresa eta erakunde publikoak alokatuak. Europako beste herrialdeek osatzen dute gehiengoa, guztien %22arekin. Afrika magrebia eta Ekialde Hurbilak, berriz, azalera guztiaren %16a hartzen du. Beste %16a suposatzen dute amerikar kontinentetik etorritako erakusketak eta eskaintzak. Eta azkenik, Asia-Ozeania eremua eta Afrika beltzak, azalaren ehuneko 14a eta 13a hartzen dute, hurrenez-hurren.

Alde Zaharreko kaleetan plaka berriak jarri dira

Udaleko Zerbitzu Departamentuak Alde Zaharrean kaleen izenen uniformizazioaren aldeko apustua egin du. Duela egun gutxi, kaleak izendatzeko zeuden plaka-kak kendu eta denentzat berdina izango direnak ipini ditu Alde Zaharreko kale guztietan.

Zenbait astez Denda kalea eta kale Nagusiaren arteko ertzean bi plaka ipini ziren, zenbait pertsona zein erakunderen iritzia jaso nahi baitzen bietako bat aukeratu ahal izateko. Aitor Kerejeta alkateordeak esan zuenez, "azkenik gaur egun daudenak aukeratu ditugu. Metro bateko luzera dute eta 45 zentimetroko zabalera. Denetara 57 plaka jarri dira eta laister beste bi gehituko dira Remigio Mendiburu kalea behin betiko irekitzen denean".

"Denbora batez erakusgai egon dira guk buruan genituen bi ideiak, eta jende askok eman digun iritzia kontuan hartu dugu. Hasiera batetik argi geneukan gainera kaleak euskaraz joan beharko zirela, eta horrela izan da azkenean" esan zuen Kerejetak.



Denetara 57 plaka jarri dira Alde Zaharreko kaleetan

pa
inmobiliaria
gestoría
administración de fincas

pérez alkain

Matxin de Artzu, 14
20280 Hondarribia
Tel. 943 64 21 57
Fax: 943 64 54 16
e-mail: gespeat@euskatnet.net

Jatetxea

Gran Sol

- Sukaldaritza tradizionala
- Eguneko menua
- Karta

San Pedro kalea 63
Tel. 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA

Zenbait pertsonaren jokabide desegokiak

**18 argi puntu puskatu dira Alde Zaharrean*

Udaleko Gizarte Departamentutik jakinarazi zaigunez, azken asteotan hirian oso desegokiak diren zenbait jokaera nabaritu dira. Horietako bat, izan da San Felipe baluarte eta Fraxkueneko Murrua kalea lotzen duen bideko argiak puskatu dituztela.

Departamentutik esan denez, "urtarrileko gau hotzak ematen duen babesaz baliatuz, norbaitek 18 argi kolpatu, kristalak eta lanparak hautsi eta altzairu herdoilezinezko markoak zanpatu zituen".

Horman sartuta dauden argi horietako bakoitzak 115 euro balio ditu, beraz, guztien kostua 2.070 eurokoa da.

Hala ere Udalak ez du ekintza hauek errepikatzea nahi nahi. "Hondarribiar guztien izenean eskerrak eman nahi diegu gureganako eta zuenganako erakutsi duzuen errespetauagatik. Eta bien bitartean itxaropenez jarraituko dugu ea noiz edo noiz zuen buruetara heldutasuna eta ezaguerare etortzen den" amaitu zuen Aitor Kerejeta zinegotziak.



Apurtu duten argi puntu bat

Alde Zaharreko edukinontzietan ez da egoki birziklatzen



Alde Zaharrean dauden zenbait edukinontzi

Gogoratuko duzue, 2005eko abuztuan Hondarribiko Hirigune Historikoan edukinontzi berriak jartzeari ekin zitzaion, inguru horretan gaikako zabor-bilketa ahal den egokien egin ahal izateko. Hiriko gainontzeko puntuetan gaikako bilketa hau egitea posible zen, baina Alde Zaharrean ez zen posible.

Ordur geroztik, Txingudiko Zerbitzuek eguneroko jarraipena egin dute edukinontzi horien, eta horietako bakoitzean ez dela sartu beharreko zabor mota sartzen oharatu dira.

Hori dela eta, Udaletxeak eta Txingudiko Zerbitzuek, Alde Zaharreko bizilagunei gogorarazi nahi die edukinontzi horiek nola erabili behar duten:

Hondakin organikoa tapa berdea duen ontzian.
Papera-kartoia tapa urdina duen ontzian.
Beira tapa zuria duen ontzian.
Enbaseak tapa horia duen ontzian

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

PIRU TALDEA

Iñaki de la Fuente



Azken urteotan Amute auzoko bizilagun kopurua hazi dela begibistakoa da eta biztanleen gorakada honetaz jabeturik, auzoaren beharrak gero eta gehiago direla argi dago. Dena dela, auzoaren alde lanean dabilen jendea ere ez da falta eta adibide gisa hortxe dugu Piru taldea. Halaxe, elkarteko lehendakari den Iñaki de la Fuenterekin aritu gara hizketan eta honatx bere ahotik jasotakoak.

Historia luzea al du Piru taldeak?

Bueno, Piru taldea 2000. urtekoa da, baina jatorria Amuteko astialdi taldean du, geroago Amuteko Bizilagunen Elkarteko astialdi taldea izango zen horretan, eta paper kontuengatik egun Piru taldea dena. Sortu zenetik jolas eta kultur elkarteak da eta mendiko ibilaldiak, udako kanpamenduak... antolatu izan ditugu.

Jende asko al dago zuen taldean?

Bazkideak, kuota ordaintzen dugunak, 16 gara; 28 urtetik 42 urte arteko bazkideak gaude eta ni neu naiz zaharrena. Lehenago, udako kanpamenduak antolatzen genituen, baina garaiak aldatuz joan dira eta, 2005ekoa, hau da, iazkoa izan da udako kanpamendua antolatu ez dugun lehen urtea. Hasieran, Amuteko gazteekin joaten ginen, baina jaiotze-tasaren bilakaera ikusita, gure eskaintza Hondarribia osoko gazteei zabaldu genien. Garai batean begiraleek musu-truk egiten zuten lan, baina egun horrelako konturik ez da. Gai hau gero eta gehiago ari da profesionalizatzen eta jendeak kobratu egin nahi du.

Zeintzuk dira antolatzen dituzuen jarduerak?

Bueno, udako kanpamenduak antolatu izan ditugu bazkide ez direnentzat, baina 2005ean ez dugu halakorik egin, bazkideentzat izango den aterpe bat egiten ari baina Nafarroa aldean eta daukagun denbora apurra horretan ematen baitugu. Bizikidetza, ibilaldiak... egiteko aterpe bat erakitzen ari gara eta ia ez dugu beste jarduerarik egiteko astirik. 80m2 ko bi solairu izango ditu, jangela eta ohatzeak. Bertan guk nahi ditugun jarduerak antolatu nahi ditugu, inoren mendean egon gabe; talde txikiagoak antolatu, baina gureak baino ez diren baliabideekin. Horretaz gain, Amuteko Bizilagunen Elkartearekin ere lanean jarraitzen dugu eta oso harreman estua dugu bi elkarteok. Hain da hala, non zenbait lagun bi elkarteetako bazkide ere badiren.

Piru taldeak elizako taldea izaten jarraitzen al du?

Ez, dagoeneko badira 10-15 urte parrokiarekin zerikusirik ez dugula.



Ainara Elizondo

Non eta noiz biltzen zarete ?

Hilabete bakoitzeko azken ostiralean biltzen gara Amuteko Bizilagunen Elkarteko lokalean. Hala ere, udalak beste lokal bat utzi behar digu aurki.

Taldearen beharren artean aterpea aipatu duzu. Jasotzen dituzuen laguntzak, berriz, zein dira?

Laguntzak kanpoko jarduerak antolatu ditugunean bakarrik eskatu izan ditugu eta alde horretatik, udaletxeak beti lagundu izan gaitu. Azken urteotan udako kanpamenduak eta ibilal-diren bat antolatu dugunean eskatu dugu laguntza, baina gainerakoan gu geu moldatu gara. Udaletxearekin ez dugu arazorik izan gai honi dagokionez, baina Foru Aldundiari laguntza eskatzea zailagoa izan zaigu, paper kontuak zirela eta.

Zaila al da Piru aurrera ateratzea?

Ez, taldekook elkar ezagutzen dugula urteak dira, kanpamenduetan elkarrekin izan gara eta ondo moldatzen gara; gure elkartean jendeak asko hartzen du parte.

Gerora begira, Pirurekin jarraitzeko esperantzarik ba al duzue?



Bai, jakina. Olentzero, herri kantak... mantentzen jarraitu nahi dugu; Amute handitzen den neurrian leku eta lokalei dagokienez prest egon nahi dugu datozkigun urteetarako. Gure helburua hauxe da: jendeari gure auzoak aukerak dituela erakustea, eta batez ere

auzoko jendeari, nahiz eta inor ez dugun baztertzen. Gazteria elkartzeko lekua nahi dugu; jendeak elkar ezagutzeko eta elkarrekin egoteko aukera izatea.

Itxaropenez beteriko Iñakiren mezu honekin honaino elkarrizketak emandakoak. Piru taldeari buruzko azalpen gehiago behar izanez gero edo bertako jardueretan interesa baldin baduzue, zoazte elkartera edo Iñakirengana jo beldurrik gabe.

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

ALTZOKO ERRALDOIA (eta II)



Martin Iturbe

Miguel Joakin Eleizegi Ateaga, Altzoko Erraldoiari buruz, aurreko alean esandakoez gainera, beste bi gauzatxo aipatuko ditut gaurko honetan. Erraldoiaren irteerak, alde batetik. Lehenengo irteera Bilbora egin zuen alokatutako gurdi batean. 1843. urtean Donostian egon zen, eta 1845ean Parisen. Ikusmira sortzeko zenbait trikimailu erabili zituzten, hala nola, erraldoia turkoz mozorrotzea edota Espainiar armadazo general gisa jartzea.



Honako errege-erregiñak bisitatu zituen bere irteeretan. Espainian Isabel II, Frantzian Luis Felipe, Portugalen Maria de la Gloria eta Ingalaterran Victoria erregiña ospetsua.

Bestalde, erraldoiaren heriotzari buruz gauza ugari esan da. Hala ere, egia-aren egia honako hau da zalantzarik gabe: biriketako

tuberkulosia zela eta hil egin zen 1861eko azaroaren 20an, berrogeita hiru urte zituela bere sortetxean. Ordu zehatza ere jakin da: arratsaldeko laurak eta laurdenetan. Hilketza erraldoi bat ekarri zuten Tolosatik gorpua Altzo Azpiko hilerrian hilobiratze-ko.


Gosez hil zela esan izan da sarritan, baina kontra-koa probatzen dute besteak beste, bere garaian, baserritik irten gabe bizitzeko baliabide nahikoak izateak eta testamentuan, aldeztu aurretik ordainduta-ko 500 meza utzi izanak. Horretaz gain, azken bidaletan berea zen gurdia zuen, luxua garai haie-
tan.

Herriko jendeak esaten zuen etnologo batzuk Joa-
kinen hezurak erosteko asmoz etorri zirela. Fami-
liak ezezkoa eman omen zuen eta aurrerago nor-
baitek haren hezurak lapurtu zituela zabaldu zen
eta gaur egun inork ez daki non dauden.

Dena den, eta guzti hau dela medio, ipuingai edo
leyenda mailako zerbait piztu zen gure txikitako
denboran, izan ere auzo-herrikoak ginenok hurbile-
tik hartzen bait gintuen. Esan ere esaten zen, nola,
soroan lanean ari ziren lekutik, bere aitak manda-
turen batean etxera bidaltzen zuenean, sukaldera-
tu eta erdi-egosi zireneko lapiko osoa irensten
zuela. Bada zerbait, arnasaldi bakarrean urdaile-
ratzea, sasoiko sei gizasemerentzat nahikoa eta
gehiago izan zitekeena.

Gurasoentzat ere helduleku egokia izan ohi zen
Altzoko Haundiaren izena aipatzea umeari beldur
pixka bat sartzeko. Honela sikiera, bostenbat minu-
tuko geldialdia izaten zen sukalde bazterrean.

Gaur ordea, beldurbide guztien gainetik, Altzoko
herriak begi guztien aurrean jarri du erraldoi honen
irudia, eta bide batez, herriari ospea eman dio. Hori
dela eta, ezagunagoa bihurtu da Altzo, herri txikia,
bazenik ere ez genekien hauengan.



Udalak “Euskara Merkataritza” kanpaina martxan berriro jarri du

*Lehen aldiz 2001-2002ko neguan antolatu zen

Hondarribiko Udalak, bere Euskara Zerbitzuaren bidez, merkataritzan euskara ahalik eta gehien erabili dadin "Euskara Merkataritza" izeneko kanpainarekin segitzen du aurten ere. Lehen aldiz duela bost urte egin zen, eta ekimen honen bidez, itzulpenak, kartelak, hiztegiak eta abar ematen zaizkie dendariei beren komertzioetan erabili ditzaten.

Horretaz gain, kanpaina honi esker, merkataritza eta ostalaritzako langileei ikastaroak eskaintzen zaizkie Udal Euskarategian, eta dendetan errotulazioak jartzen dituztenei diru laguntzak ematen zaizkie.

"Zure esanetara" izeneko katalogoan, zenbait hizkuntza aholkularitza, zerbitzu eta materialak jasotzen dira, hala nola, testuen itzulpen eta maketazio zerbitzua.

Hori gutxi balitz, herriko harategietara bisita

egin da Euskara Zerbitzutik, jadanik zabaldua dagoen materialaren jarraipena egiteko. Aukera aprobetxatuz, material berria (bezeroari entregatzeko liburuxkak) entregatu da, harakinek aurrez eskatu bezala.

Euskara Zerbitzuaren asmoa, datozen urteetan orain arte egin den lanari jarraipena ematea da, merkataritzan euskararen erabilpena ahalik eta zabalena izan dadin.



Euskal Txiste Grafikoaren Sari Banaketa :

Urtero bezala, Udal Euskara Zerbitzuak 14.aldiz antolatu zuen Txiste Grafikoaren Lehiaketa, eta epea.Abenduaren 19an bukatu ondoren, epai mahaia bildu zen lanak aztertzeko. Aurten ere partehartze ederra lortu zen, herriko gazteak gehienbat; nabarmena da neska baino mutil gehiago animatzen direla beraien lana aurkeztera.

Sari banaketaren ekitaldia otsailaren 4an burutu zen Udal Areto Nagusian, partehartze zabalarekin. Sariak banatu ondoren, epai mahaiaren partaideek Iñaki Arzak, Antton Olariaga eta Aiert Alonso, balorazioaren

prozesua zein izan zen, eta marrazkilari gazteei aholku batzuk zabaldu zizkieten. Aretoan erakusgai zeuden sarituen lanei buruz ere hainbat komentario ere luzatu ziren ere.

Bi marrazkilari ospetsuen esku jarraitu zuen jarduerak, Asisko Urmeneta eta Marko, beraien gaitasun eta eskarmentuaren apurra erakutsi zuten, giro alai eta dinamikoan. Publikoan zegoen jendea hurbildu zen gero paper txuriaren gainean beren arrastoa uztera. Errotulagailuak gutxi ziren denentzat, marraztu eta margotu nahi zuten gehienek eta.

SARITUAK:

A MAILA:

1. SARIA: ENEKO ASPILLAGA CUEVAS
2. SARIA: XABIER LASALDE GALARZA

B MAILA:

4 sari berdinak ematea
erabaki du epaimahaiak

Sarituak hauek dira:
IKER MONTOYA IRIDOI
ENEKO ARRARAS
BEÑAT LAPITZ DANBOLENEA
BEÑAT LEKUONA MARISKAL

D MAILA:

3 sari berdinak ematea
erabaki du epaimahaiak

Sarituak hauek dira:
NAROA GIMENEZ CAMINO
JON URANGA MUGURUZA
IKER GABILONDO

Epaimahaia aurtengo edizioan honako hauek osatu dute: Antton Olariaga, Iñaki Arzak eta Aiert Alonsok



Eneko Aspillaga

Marraskia, Umorea eta Euskara lehiaketan



Xabier Lasalde



Beñat Lekuona



Eneko Arraras



Naroa Gimenez



Beñat Lapitz



Iker Montoya



Iker Gabilondo



Jon Uranga

Euskal arraunaren munduak ez du Astillerorekin leihatu nahi

Zazpi euskal arraun elkartek TKE Liga desegin eta txapelketa berria sortu nahi dute, Astillero kanpoan utzita. Arraun elkarte kantauriarrak agertutako "jarrera ezkorra" eta baliatzen dituen "trikimailuak" izan dira, egoera hau sortzeko arrazoi nagusia.

Urtarrilaren amaieran Donostian izandako bilkuran, zazpi arraun elkarteek (Hondarribia, Orio, Pasai Donibane Koxtape, Urdaibai, Zarautz, Zumaia eta Arkote) liga berri bat sortzea proposatu zioten Angel del Hoyo, TKELigako presidenteari. Bitartean, Castro eta Pedreñak ez dute oraindik bere azken erabakia jakinarazi, Kantabriako Gobernua erabaki honi ez atxikitzeko presioak jasaten ari baita. Talde galizarrei dagokienez aldiz, Cabo da Cruz ados dago erabakiarekin, eta Mecoseko zuzendaritza batzordea noiz bilduko zain dago, baina ia ziurra da baiezkoa emango duela.

Zentzu honetan, Astillerok bere aurka dopina baliatzeagatik bi auzi ditu martxan, aurreko denboraldian Hondarribian ospatu zen Telefonica banderan gertatutakoaren ondoren. Eusko Jaur-laritzarekin bata, eta TKE barrukoa bestea.

Egoera kontuan hartuta, gertaeren bilakaera nondik-nora joko duen jakiteko, datorren ezohiko batzarraren zain egon beharko da. Edozein modutan, Astillerok, jokoan jarri diren hiru TKE txapelketatik bi irabazi ondoren, ezer gabe gera daiteke oraingoan.

TKE Liga deuseztu eta txapelketa berria sortzeko proposamena abian da beraz. Bistan denez, gauzak egituren aldetik ez lirateke gehiegi aldatuko. Zentzu honetan, Angel del Hoyo mantenduko litzateke elkarte berriaren presidente, eta aholkulariei dagokien moduan, ez zen aldaketarik izango. Era berean, egungo TKE Elkarteko estatutuak eta araudia berdin jarraituko lukete.



2006ko aurrekontuak aurkeztu dituzte departamentu guztiek

2006 urte honetarako aurrekontuak ezagutzen dira azken aste hauetan zinegotzi eta departamentu guztietako arduradunek egindako aurkezpenen ondoren. Gogoratu behar da abenduaren azken udal batzarrean onartu zirela gehiengo absolutuz.

Aurrekontua egiterakoan, Udalak ze irizpide kontuan hartu dituen Aitor Kerejeta zinegotziak esan zituen. "Alde batetik, diru sarrera arrunten eta alde zurreratik adostutako beste administrazioetako diru-laguntzen araberako aurrekontuak egin nahi izan ditugu. Horri esker inorekin zorrik egin gabe aurrera jarraitu ahal izango dugu".

Bestalde, Udalaren asmoa kopuruaren %20 aurrezte da. "Diru-sarreraren eta gastu arrunten arteko aldea %20ra hurbiltzea nahi dugu, aurrezpen horri esker inbertsio arruntak egin ahal izango ditu urtean zehar" gaineratu zuen Kerejeta.

"Udaletxeko alor guztietarako aurrekontu orekatua egitea, udal mailan gauzatu daitezkeen inbertsioak bakarrik jasotzea, eta partaidetza haundiz egindako aurrekontuak direla" esanez amaitu zuen Kerejeta alkateordeak.

Hasierako aurrekontua 18.286.489 eurokoa da eta honi erantsi behar zaizkio 2005eko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako beste ia 2.000.000 euroak. Hau martxoaren bukaeran edo apirilean izango da.

Euskara Departamentuan gorakada

Euskara Departamentuak milioi erdi euro pasatxoko aurrekontua dauka aurtengo. Kattalin Noblia zinegotziak eta Koro Eraso teknikariak azaldu zuten, "aurrekontua bi zati nagusitan banatzen da. Erdia Euskara Zerbitzura zuzentzen da, eta beste erdia

Udal Euskaltegiak".



Nobliak Euskaltegiak bizi duen egoera azpimarratu zuen. "Aurten eskariak gora egin du, eta iaz 120 ikasle bazeuden, aurten 170 badira. 12 taldetatik 15era igarotzea lortu da, eta hori Udalak egin duen esfortzuagatik izan da. Ordutegiak zabaltzen saiatu gara, Euskaltegiak joan daitekeen pertsona harengan pentsatuz. Jendeak dituen ordu libreei begiratu behar diegu, eta malgutasun horrekin jendea erakarr".

Euskara Departamentutako aurrekontua guztira: 523.830,00 €

EUSKARA ZERBITZUA: 267.564,00 €

. Langilegoa	122.964 €
. Ekintzak	70.000 €
. Argitalpenak	41.750 €
. Diru-laguntzak	23.400 €
. Publizitatea	9.000 €

EUSKALTEGIA: 256.266 €

eukeni optika

Udalak milioi bat euro inbertitzen du Gizarte Zerbitzuetan

Aitor Kerejeta alkateordeak eta Maite Pelaez zinegotziak aurkeztu zituzten 2006 urterako Gazteria eta Gizarte Zerbitzuen departamentuko aurrekontuak. Gazteria Departamentuari dagokionez, Kerejetak "Psilocybe Enea birgaitu eta osatzeko egin den



esfortzua azpimarratu zuen. Orain artean musika elkarteak Mendelun dagoen eraikinaren erdia erabiltzen zuen, eta orain, proiektu interesgarri honi esker osoa erabiltzeko aukera egongo da. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zait Prebentzio Komunitarioaren alde egiten ari garen apostua azpimarratzea".

Maite Pelaezek ordea, "Gizarte Zerbitzuetatik azken aldiotan departamentua ahalik eta jende gehienarengana heltzeko egiten ari garen esfortzua" goraipatu zuen. Ildo honi jarraiki, "aurten web gunean alderdi honetan indarra egiten saiatuko gara, jendeak ahalik eta informazio gehien eduki dezan gure departamentuaren inguruan".



Gizarte Zerbitzuen aurrekontua: 1.052.690 euro
Langilegoa: 160.426 euro
Etkez etxeko laguntza: 365.000 euro
Kasino Zaharra: 67.945 euro
Dirulaguntzak: 123.083 euro
Larrialdietarako laguntzak: 187.000 euro

Gazteria departamentuko aurrekontua: 445.516 euro
Gazte Informazio bulegoa: 34.285 euro
Saindua Gaztelekua: 78.670 euro
Psilocybe Enea: 360.000 euro
Prebentzio Komunitarioa: 241.970 euro

Ia 3,4 milioi euro gastatzen da Zerbitzuetan

Aitor Kerejeta alkateordeak aurkeztu zituen Zerbitzuetako departamenturen aurrekontuak. Orotara, 3.359.838 euro dira, eta zinegotziak azpimarratu zuenez, "garrantzitsua da Udalak urtero milioi bat euro gastatzen duela bide garbiketarako. Duela hamar urte apostu sendoa egin zen hiria garbi mantentzearen alde, denoi gustatzen zaigu hiria garbi mantentzea, baina horrek bere kostua du".

Kopuru horretaz gain, aipagarriak diren beste batzuk honako hauek dira:

Kopuru horretaz gain, aipagarriak diren beste batzuk honako hauek dira:



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

<i>Zerbitzu Orokorak</i>	<i>1.011.236 euro</i>
<i>Parke eta lorategiak</i>	<i>501.770 euro</i>
<i>Argiteri publikoa</i>	<i>363.194 euro</i>
<i>Hondartza</i>	<i>220.950 euro</i>
<i>Hilerria</i>	<i>105.440 euro</i>
<i>Nekazaritza</i>	<i>105.350 euro</i>

Kerejetak gehitu zuenez, "martxoan edo apirilean 2005eko aurrekontuen kreditu aldaketa emango da, eta ondorioz zenbait inbertsio egin ahal izango dira. Horien artean, Guadalupeko Santutegian eta Sabino Arana kalean argiztapena hobetzea burutuko da, baita zenbait hobekuntza ere bide publikoetan".

Kultura, Kirolak, Turismo eta Merkataritzako aurrekontuak gora egin du

AURREKONTU OSOA: 3.738. 145 euro

Kultura: 2.600.867 euro
Kultur jarduerak: 170.000 euro
2006ko jaiak: 200.482 euro
Musika Eskola: 107.000 euro
Arte Sustapen bekak: 14.000 euro
Liburutegirako liburuak erosteko: 17.000 euro

Kirolak: 522.448 euro
Kirol taldeei laguntzak: 301.000 euro
Instalakuntzen garbiketa: 26.800 euro
Amuteko kirol gunea: 12.000 euro

Turismoa eta merkataritza: 143.160 euro
Jarduerak: 51.225 euro
Dirulaguntzak: 38.600 euro


Udaltzaingoak 21 langile ditu bere funtzioak betetzeko

Hondarribiko Udaltzaingoak bere aurrekontua azaldu zuen Udaletxeko Areto Nagusian egindako aurkezpen batean. Luis Miguel Iturrarte zinegotzi arduradunak esan zuenez, "iazkoarekin alde gutxi dago, %2an egin baitu gora. Aldaketa nagusienak Udaltzaingoaren antolamentuan eman ditugu. Aurretan, Udaltzain buruaz gain, lehen agente koordinatzaile bat egongo da, eta bost lehen agente. Horrela, eguneko 24 ordutan eta urteko 365 egunetan lehen agente bat zerbitzuan egotea lortuko dugu. Lehen agente hauek autonomia eta erabakitze gaitasun haundiagoa dute, edozein unetan sor daitezken erabakiei aurre egiteko".

Udaltzaingoaren aurrekontua: 1.886.831 euro

Langilegoa: 1.557.713 euro
TAO makinen alokairua: 84.400
Bide Hezkuntza: 21.500 euro
Mantenimendua: 79.000 euro





kai zahar
pub
almirante alonso, 12



truck
diskoteka
foru kalea, 13



C/ Markos Deunaren Enparantza, 7
Puntala Auzoa
20280 **HONDARRIBIA**
Tel.mobila: 609 414145

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 08 88

Hondarribiko Agenda21en diagnosis

Txingudiko Udaltalde 21en proiektuaren bidez sustatu nahi diren Hondarribiko eta Irungo Agenda 21en prozesuak aurrera doaz. Lehengo urtean zehar udal teknikari eta politikariek jasangarritasunaren gaiarekin zerikusia duten arloei buruzko prestakuntza jaso zuten eta ondoren, prozesu honetan zehar aholkularitza aurrera eramaten ari diren enpresako ikerlariak bi udalerrietako ingurumen, gizarte eta ekonomiaren egoera isladatzen duen diagnosis idazteari ekin zioten.

Diagnosiaren helburua udalerriko gizarte, ekonomia eta ingurumen egoera isladatzea da, udalerría jasangarritasunaren ikuspuntutik norabide egokia darman ala ez aztertuz. Beraz diagnosis herri mailan garapen jasangarriari eragiten dioten arazo nagusiak eza-gutzeko baliagarria izango da. Laburbilduz, honakoak izan dira diagnosian aztertu diren alorrak:

Hondarribiko egoera sozioekonomikoa: atal honetan udalerriko jarduera ekonomikoak eta gizarte gaiak jaso dira. Zehazkiago, honako puntuak aztertu dira:

- Herriko biztanleriaren bilakaera eta egitura
- Hazkunde begetatiboa eta migrazio mugimenduak
- Hezkuntza sistema, biztanleen heziketa maila
- Euskararen garapen maila
- Lan merkatua eta batezbesteko errentak
- Herriko ekoizpen egitura (ekonomia ereduak)
- Oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak
- Herritarren sentsibilizazio eta parte hartze maila

Lurralde antolaketa eta hirigintza:

- Hondarribiko hirigintza eredua
- Udalaz gaindiko planak eta proiektuak
- Hiriko gune berdeak
- Jarduera ekonomikoetara zuzendutako azpiegiturak
- Bestelako azpiegiturak: bide-azpiegiturak, aireportua, kirol-portua, eskualde mailako trenbide azpiegiturak.

Garraioa eta mugikortasuna:

- Pertsonen mugikortasuna (garraio publikoa, bidegorri-sarea, aparkalekuak eta motorizazio-maila).
- Herri eta eskualdeko garraioaren egoera.
- Trenbide sarea
- Aireportua

Ingurune fisikoa:

- Ingurune fisikokoaren deskribapena
- Hondarribiko eta eskualdeko natura baliabideen babes maila.

Ingurumen aldagaien egoera:

- Uraren zikloa
- Lurzorua
- Hiri hondakinak
- Airearen kalitatea
- Zarata

Aipatu alorrak aztertu ostean, diagnostikoaren amaieran



jasangarritasunaren ikuspegitik Hondarribiko egoera deskribatzeko baliagarriak diren ondorio nagusiak laburbiltzen dira. Era honetan, udalerrian konpondu beharreko lehentasunezko arazoak identifikatu ahal izango dira. Dokumentu hau 2005eko iraila eta urria bitartean telefonoz egin ziren 250 inkesten bidez osatua izan da.

Hondarribiko zein Irungo diagnosiak egin dituen enpresak dokumentu horiek eskualdeko bi Udaletxetan eta Bidasoa bizirik-en egoitzan urtarilan aurkeztu zituen eta une honetan, udal teknikariak eta arduradun politikoak horiek berrikusten ari dira. Berrikuspena egin ostean, **Hondarribiko diagnosis Agenda 21en jarraipen batzordean aurkeztuko da**, bertan eztabaidatu eta onartuak izan daitezten.

Ondoren, Hondarribiko diagnosis herritarrei aurkeztuko zaie eta **Agenda 21en Herritarren Foroa** eratuko da, udalerriko elkarteek eta banakako herritarrek prozesu honetan parte har dezaten, udal arduradunekin elkarlanean. Foroaren lehenengo bileretan diagnosisaren ondorio nagusiak aurkeztuko dira eta bertan parte hartu nahi duten gizarte eragileek, ondorio horietatik abiatuz, **jasangarritasunaren aldeko Ekintza Plana** lantzen hasiko dira.

Hondarribiko Agenda 21i eta Txingudiko Udalalde 21i buruzko informazio gehiago eduki nahi izanez gero, www.bidasoa-bizirik.com/udalalde_21/index.asp web gunean edo Hondarribiko Udaleko web gunearen Agenda 21en atalean (www.hondarribia.org) sar zaitezke.



OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

SATARKA OLERKI LEHIAKETA

A MAILA 2. SARIA



Irati Goikoetxea

TXOKOLATEZKOAK

"Txokolatezko aintzira hark bazuen marrubizko ahate bat"

BANUEN ETA BANAIZ

Panpinak mugitu egiten dira begira ez gaudenean
Jolasean aritzen dira eskutik helduta,
armairu gaineko hautsekin gazteluak eraikitzen dituzte,
eta maitemindu egiten dira oraindik umeak diren arren.
Panpinek atximur egiten diote bizitzari
logeletako ateak itxi eta bakarrik uzten ditugunean.

Sarrailako zulotik begira pasatzen dituen orduak,
haien jolasak nolakoak ziren ikusteko,
barre nola egiten zuten jakiteko,
kontatzen zituzten ipuinak entzuteko.
Ez nuen ezer ikusi, jakin eta entzun.
Nonbait,
nik ikusten nituen neurri berean ikusten ninduten haiek
ni.

Arratsalde hartan, sei urte bete herriarekin,
neure burua panpin bihurtzea erabaki nuen.
Geroztik,
bizitzari atximurka bizi naiz
soineko luuuuuuuzte bat soinean
umeeekin maiteminduta,
eta helduekin,
Harrezkero,
beti naiz ume.

ORDULARIKO ORRATZAK

Denbora dut sofriarazten didan bosgarren maitalea.
Ispiluak gorde ditu
esnezko bi hortz falta zitzaizkion irribarre haren irudiak,
ispiluak egin ditu bere. Baina pitzatua da aspaldian.

Kaferik gabeko ilunabarretan

hotz zaizkit berrogei graduako arratsaldeak,
gaueko hontzaren uluak mutu
begiradarik gabeko leihoetan.
Denborari ere gelditu egiten zaizkio ordulariko orratzak.

Izan ere, hain zen gozoa udalekuetako kremaren usaina...

Orratzik gabeko ordulariak erabiltzen ditut aspalditik,
esnezko azken hortza erori zitzaidanetik,
eta ez naiz oraindik kaferia ohitu;
horregatik zaizkit hotz oroitzapenaren arratsaldeak.
Eta goizak.

EZ DADILA IZAN ASPALDI

...izarrak esku artean edukitzea bezalakoa zen..

Lotarako txirikordatzen ziren begietan
zure ipuinak zintzilikatzen zitzaizkidan kilima bihurrien
itzalean;
zu zinen ilunabar berriko trapezista,
irudimenak kateatutako hariaren jostailu:

...Kristalezko zapatak aspaldi gelditu zitzaizkidan txiki
eta ortozik egiten dut amonaren etxerainoko bidea.

Hirugarren txerriaren lapikoak aspaldi utzi zion irakiteari,
eta urak otsoaren hanka irinez beteak garbitu ditu.

Arkume txikia gordetzen zuen erlojuak aspaldi jo zituen
hamabiak
eta kalabazak sagar gorri bihurtu dira...

Marrazkirik ez du nire irudimenak
ahate itsusiak ispiluari politena bera ote den galdetzen
dionetik.

Izan zaitez berriro, aspaldi hartan bezala,
ipuinak kontatuko dizkidan zazpigarren ipotxa.

GEHIEGITAN HUSTU NAIZ

-Zergatik egiten duzu negar?-esaten dit sarri bizilagunaren semeak.

Eta heriotzaz hitz egiten diot,
nahiz eta jakin ez didala ezer ulertzen.
Badakit sobera dituela malkoak
hautzaroak behin eta berriro hil ez duenak,
zizareak bizitzaren aldeko hiletetan bakarrik ezagutu ditue-
nak.

-Zergatik egiten duzu negar?-esaten dit sarri bizilagunaren semeak.

Eta maitasunaz hitz egiten diot
nahiz eta jakin bihotz formako piruletei bakarrik egiten diela kasu.
Badakit urruti zaizkiola arrosa koloreko ametsak
udako gau beroak ohe hotzetan igaro ez dituenari,
mendiko margarita guztiak txikiak iruditzen zaizkionari.

-Zergatik egiten duzu negar?-esaten dit sarri bizilagunaren semeak.

Eta politikoez hitz egiten diot
nahiz eta jakin berarentzat indioetara jolastea bezala dela.
Badakit horri zuriaren parekoa dela bekainarte zimurra
hitzak depilatzekeo beharrik ez duenarentzat,
besteen eskuetan kilimak topatzen dituenarentzat.

-Zergatik egiten duzu negar?-esaten dit sarri bizilagunaren semeak

-Munduan ez delako pailazorik gelditzen.
Negarrez bukatu dugu biok.
Ulertu dit
esan nahi ez niona.

PUM!

Andereño Pilik mundua borobila zela esan zigun,
berdea eta urdina,
eta tarteka laino zuriak itsasten zitzaizkiola.
Pixka bat ulertu nion, baina ez guztia.
Eta jokinek esan zidan lainoek urdinak behar zutela izan.
lainoak ura direlako;
eta oraindik gutxiago ulertu nuen
nire etxeko ura ez baita urdina.

Puxika bat hartu eta
borobila dela esan diot nire buruari,

isilik,
amak ez entzuteko moduan,
gezurra esatea gaizki baitago.
Hala esaten du amak.

Margo berdearekin margotu dut zatirik handiena
eta urdinez gelditzen zen apurra.
Mendiak egunero ikusten baititut
eta itsasoa...
itsasoa noizean behin,
oso noizean behin.

Kotoia jarri diot gainean,
lainoak "itsatsi" dizkiot, zuri-zuriak,
Jokini ez baitiot ezer sinesten.
Bai, gaur negua da nire munduan.

Besapean jarri dut puxika,
nire mundua,
eta mundua sortzea erraza dela pentsatu dut.

PUM!

Puxika lehertu zait besapean
eta kotoia margo urdinarekin zikindu da.

Andereño Pilirekin haserretu naiz
munduan hain hauskorra dela esan ez zigulako.

UMEEK ETA MOZKORREK...

Zer da, zer da,
Gezurra ezpainetan
Beti egia esaten duena?

Eta umea ispiluari begira gelditu zen...

"Eta negar egin zuen txokolate artera, kolore marroi
hura kolore bizi bihur zedin, ahate arrosa"

ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

... Y QUE LE GUSTEN LOS PERROS

Duela ia zortzi hilabete bere senarrarengandik banandu egin den irakasle baten historia kontatzen da filme honetan. Bere familiak emakumeak bere bizitza berriz ere hastea nahi du, eta internet bidez bere datuak zabaltzen hasiko da ezagutzen ez duen gizonekin zitak lortu ahal izateko. Pixkanaka bere bizitzan era guzti-etako kandidatoak agertzen hasiko dira. Bapatean bi gizonezko ezagutuko ditu eta bietaz maiteminduko da, hala ere batekin bakarrik geratu beharko du.



DVD

LOS CHICOS DE ORO

Bi gazte dira película honen protagonistak. Nahiko pertsonaia xele-break dira, eta beren asmoa ahal den azkarren aberastea da. Hala eta guztiz ere, egitasmoak porrot egingo du. Azken ideia, aberatsak diren bi amona zaharrekin ezkontzea da, daukatzen dirutza kendu ahal izateko. Gertatzen dena, bi amonek xoxik ez dutela eta ezkondu nahi dutela gero seguruaren aldetik dirua ateratzeko.



DVD

EL METODO

Enpresa multinazional batek goi kargu bate-tarako pertsona bat behar du, eta hautapen frogetara zazpi pertsona aurkeztzen dira Madrilén. Idazkari batek eraikineko areto hotz batetara eramango dituzte, eta han hasiko dira bata bestea ezagutzen. Beldurra eta ezinegona nagusituko da, eta egoera paranoiko batean aurkituko dira zazpi pertsona hauek, konfidantza osoa galduko dutelarik euren buruetan.



DVD

EL CLAN DE LOS ROMPEHUESOS

Ameriketako futboleko jokatzeko zuten gizon ospetsu bat kartzelaratzeko dutenean hasiko da historia. Alka-ideak ez du aukera galduko eta lan gogor bat ipiniko dio gizon honi, egindakoaren errua nolabait ordaindu dezan. Presoek osatzen duten futbol taldea entrenatu beharko du. Guzak interesgarri jarriko dira jakiten dutenean nor izango den presoaren talde honen areriera: kartzelarien taldea.



DVD

LA MASCARA 2

Protagonistak bizitza berri bati ekiten dio, aita izateari zion beldurra behin gainditu ondoren. Bere-hala jakingo du jaio berri den semeak maskarak dituen botere izugarriak bere egin dituela. Hala ere, maskara honen aurreko jabea haserretu egingo da, eta ordutik aurrera jaio berriaren aurka hasiko da botere hori kendu asmoz.



DVD

ELIZABETHTOWN

Dineinatzaile oso berezi baten bizitza kontatzen da filme honetan. Egun konkretu batean bere bizitza erabat aldatu egingo da. Elizabethtown hirira dihoanean, bere familia bisitatzeraz, Claire ezagutuko du, emakume eder, positibo eta oso erakargarria. Ordutik aurrera, Drew diseinatzailearen bizitza erabat aldatuko da, emakume honetaz erabat maiteminduko da eta.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

Argazkien errebelatzea: Argazkilaritzako materialeak
-Eskaintza 13x18
-Eskaintza 2x1
-Errebelatu zure argazkiak CD jasotzea
formatoan

CASIO Erloju eta iratzargailuak
Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pultsea, piercing...
Bitxiak: urrez txapatuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

Gazteentzako bi jarduera

AUZOLANDEGIAK

ANTOLATZAILEA: EUSKO
JAURLARITZAKO GAZTERIA SAILA.

ADINA: 15 urtetik 30 arte.

NON: Auzolandegiak Euskal Herrian, estatuan nahiz atzerrian topa ditzazkezu.

ATZERRIRA BAZOAZ: Europako edozein herritan osasun atentzioa jasotzeko Europako Osasun Txartela atera beharko duzu (Bartolome de Urdinso 2, Irun, 943-619770). Herrialde bakoitzean dauden osasun arazoak, txertoak, etab.en informazioa (La sala Plaza, 2. 20003 Donostia).

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN EMATEAK: Martxotik aurrera.

www.gazteaukera.euskadi.net

SAINDUA GAZTETXEA

BATZAR OROKORRA: Martxoaren 17an, 19:00etan hurrengo hiruhilabeteari begira proposamenak jasoko dira:

- Programazioa (ikastaroak, tailerrak, irteerak, mintegiak, txapelketak...)
- Funtzionamendu arauak (elkartea, topagunea,...)
- Gaztelekuaren apainketa, mantenua.

Jaizkibel etorbidea, 19 943643198



ONDARTZ EDERRIA

ONDARTZ EDERRIA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



**LA HUERTA
DEL PAÍS**

egunero
5

Fruitu eta barazkiak

freskoak eta

kalitatezkoak

www.lahuertadelpais.es

NOLA DEITZEN ZAIO GURUTZE HONI ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute. Hilero Beko Errota jatetxeak eskaintzen duen bi pertsonentzako afaria ez da txantxetan hartzeko modukoa, orain arte joan direnek esan digutenaren arabera.

Urtarrileko alean jarritako galderari hirurogei bat pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Itziar Sagarzazu** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera oso erraza da. Hondarribian bizi den edonork noizbait ikusi du gurutze hau. Non dagoen ere jakingo duzue. Sabino Arana kalearen ondoan dagoen jardinean dago, eta aurretik urte askotan Lonjan egon zen. XX. mende erdirarte Opila egunean gurutze honen inguruan biltzen ziren haur eta helduak opilak bedeinkatzeko. Hala ere, galdetzen duguna gurutzearen izena da. Erantzuna izandakoan, bidali martxoaren 8 aurretik Udal Euskara Batzordera.

Aizkolarien ezpalak behar dira

Gure irakurle zaretenoi gauza bitxi bat eskatzen dizuegu oraingoan. Material oso berezi baten aurrean gaude: Hondarribian, Irunen, Donostian nahiz beste edozein herritan jokaturako aizkolaritza txapelketa, apostu edo erakustaldi batean jasotako "ezpalak" behar ditugu. Ezpala horiek noiz bilduak izan ziren jakin nahiko genuke, eta gertakizunaren eguna idatzita edukitzen badute hobeto.

Udal liburutegiko Kote-ri galdetu, argazki batzuk aterako dizkiegu ezpal horiei eta bakoitzak gordetzen duen historia kontatu ahal izango duzue horrela.

Zuen istoriak entzuteko irrikaz gaude!



SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

POSTIGU BASERRIAREN HISTORIA



Gogoratuko duzuenetz, duela ia hiru urte, lau hondarribiarrek herriko baserriei buruzko liburu bikaina argitaratu zuten. Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortigak egindako liburura jo dugu, baserri tipiko baten historia jakin ahal izateko, lehen zena eta gaur egun dena parekatzeko asmoz.

Liburuaren 454. orrialdean irakur dezakegunez, baserri honen inguruan aurkitu den lehen aipamena 1695. urtekoa da. Francisco Agirre generala eta Josefa Etxauz emaztea ziren orduko jabeak. Generalak bere alaba zen Gracia Arregiri (Guadalupeko serora) utzi zion baserria, eta honek apaiza zen bere anaia Juan Ignacio Agirrerri,

Hainbat urtetan Elizaren kabilduaren eskuetan egon zen baina azkenean, 1843an, Jose Maria Ramery jabetu zen auzi baten bidez, bere osaba apaiza zen Pedro Ramery fundazioko kapilaua zela aprobetxatuz. 1902an bere biloba Rita Rameryk erosi zion, eta honek sei urte geroago Brigida Ollori saldu egin zion. Handik hamar urtera, Jose Garmendia eta Valentina Mendizábal senar-emazteek erosi egin zioten. Azkenik, 1927an Jose Garmendia hiltzen denean, bere lau seme-alaben eskuetara igarotzen da baserria.

1964an, Arantzatik etorritako Jose Bereau eta Petra Larretxeak hartuko dute baserria, eta ondoren, Etxetxikiko Nicasio Iartza eta Maria Bereaurena izango da. Gaur egun, berritu eta moldatu ondoren, nekazal turismora bideratua dago etxea.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047

**ARROKA
BERRI**



RESTAURANTE

Higer Bidea, nº6 - 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
WWW.ARROKABERRI.COM

Urtarrila 2006

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

JAIOTZAK

2an: JARE Garcia Goikoetxea, Irungo Jon Imanol eta Irungo Miren Itxasoren alaba.

2an: ANE Igiñiz Amunarriz, Irungo Aitor eta Hondarribiko Maria Consolacionen alaba.

2an: CANDELARIA Resano del Caso, Buenos Aires-eko (Argentina) Manuel eta Madrileko Beatrizen alaba.

4an: LUMA Urroz Santamaria, Donostiako Luis eta Donostiako Arantxaren alaba.

5ean: MAIDER Salaberria Fachado, Hondarribiko Iñigo eta Pasai Donibaneko Elixabete Amaiaren alaba.

5ean: AINHOA Camacho Etxarri, Cartagenako (Murtzia) Mariano eta Donostiako Maria Teresaren alaba.

7an: MIGUEL Fernandez Arga, Madrileko Jose David eta Irungo Maria Amaiaren semea.

7an: ENERITZ Herrador Hazen, Hondarribiko Daniel eta Irungo Ainhoaren alaba.

9an: HAIZEA Lekuona Blanco, Hondarribiko Iñaki eta Bilboko Aitziberen alaba.

14an: IORITZ Garcia Nuñez, Valentziako Jose eta Donostiako Ainararen semea.

16an: NAROA Belar Ruiz, Donostiako Asier eta Hondarribiko Miren Nerearen alaba.

17an: MILA Rondeau Molnar, Donostiako Nicolas eta Montrealeko (Kanada) Stephanieren alaba.

19an: JAGOBA Iriarte Etxeburu, Irungo Javier eta Hondarribiko Edurneren semea.

20an: TELMO Campos Oronoz, Irungo Roberto eta Hondarribiko Silviaren semea.

29an: UNAI Enparan Serrano, Hondarribiko Javier eta Irungo Ireneren semea.

29an: MARTXEL Goikoetxea Agirre, Hondarribiko Xabier eta Hondarribiko Arantxaren semea.

29an: MIKEL Zabala Ormazabal, Irungo Ignacio eta Donostiako Miren Elixabeteren semea.

30ean: ARITZ Solanilla Arruabarrena, Hondarribiko Carlos eta Irungo Maria Junkalen semea.

31n: JOEL Alvarez Vilares, Donostiako Sergio eta Donostiako Sonia de Fatimaren semea.

EZKONTZAK

14an: LUIS Emazabel Estonba, Hondarribikoa, eta **SILVIA Fernandez Ramirez**, Leongoa.

21ean: MIKEL Lazkanotegi Garro, Hondarribikoa, eta **AITZIBER Urkizu Berges**, Irungoa.

28an: MAHOMED Dandon, Bir Mourod Rois-ekoa (Aljeria), eta **MARIA ELENA Lezkano Bernal**, Donostiakoa.

28an: JOSE ANTONIO Emazabel Lekuona, Hondarribikoa, eta **MIREN Santos Irastorza**, Irungoa.

HERIOTZAK

4an: ANDRES Garate Umerez, Arrasatekoa, 96 urte, Arma plazan.

10ean: NICOLASA Larzabal Zulaica, Hondarribikoa, 88 urte, San Gabriel egoitzan.

11n: FELIX Larrarte Tife, Hondarribikoa, 78 urte, Donostian.

11n: JOSE Sanchez Sanchez, Jerte del Vallekoa (Caceres), 94 urte, Gaskoinen kalean.

12an: JOSE MIGUEL Etxebeste Murgiondo, Donostiakoa, 57 urte, kale Nagusian.

14an: JESUS Lekuona Higos, Hondarribikoa, 78 urte, Donostian.

14an: GONZALO Hurtado de Sande, Zarza la Mayor-koa (Caceres), 70 urte.

20an: MARTIN Rekalde Zapirain, Oiartzungoa, 77 urte, Base-ritar etorbidean.

23an: TOMAS Villaverde Dosil, Noiakoa (A Coruña), 63 urte, Juan Laborda kalean.

25ean: DOLORES Olazabal Martiarena, Irungoa, 94 urte, San Gabriel egoitzan.

27an: ASUNCION Elizalde Goienetxe, 42 urte.

30ean: JUAN BAUTISTA Mendizabal Altuna, Hondarribikoa, 74 urte, Soroetaberrin.

URTARRILEKO EGURALDIAREN DATUAK (Hondarribiko aireportutik jasoak)

Temperatura altuena: 19,5° C, hilaren 15ean.
Temperatura baxuena: -2,5° C, hilaren 28an.
Batez besteko tenperatura: 8,2° C.
Batez besteko hezetasuna: % 74
Euri-litroen kopurua: 80,2 litro.
Egun euritsuena: hilaren 19an 14,0 litro.
Euri indartsuen unea: hilaren 28ko 15,25etan, 14,4 litro.
Egun euritsuak: 12 egun
Elur egunak: 4 egun
Kazkabar egunak: 0 egun
Ekaitz egunak: 0 egun
Behe-laino egunak: 0 egun
Ihintz egunak: 8 egun
Haizerik indartsuena: hilaren 18ko 10,16etan, 79 Km/h
Batez besteko presioa: 1027,6 milibar
Presio altuena: 1040,6 milibar, hilaren 3an
Presio baxuena: 1015,5 milibar, hilaren 29an
Eguzki orduak: 109,3 ordu

URTARRILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK

Mailegatutako liburuak: 358 euskaraz, 1140 gaztelaniaz eta 81 bestelakoak. Guztira: 1579 liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 29 euskaraz, 79 gaztelaniaz eta 19 bestelakoak. Guztira: 127 liburu.
Bazkide berriak: 31 gizon eta 26 emakume. Horietatik 33 heldu eta 24 haur. Guztira 57.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:
 Euskeraz: Egizu lo: lotarako ipuinak.
 Gaztelaniaz: COUSINS, Lucy.- La casa de Maisy.
Helduak:
 Euskeraz: ATXAGA, Bernardo.- Lekuak.
 Gaztelaniaz: DICKENS, Charles.- Los papeles póstumos del Club Picwick.

ARRANTZALE KOFRADIAN URTARRILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK:

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 18.994 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 9.751 kilo.
Dorada (Sparus aurata): 114 kilo
Boga (Boops boops): 1.597 kilo
Sardina (Sardina pilchardus): 33.127 kilo
Erla (Lithognathus mormyrus): 3.545 kilo
Berdela (Scomber scombrus): 214 kilo
Zapatari (Gerris): 349 kilo
Bestelakoak: 49 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URTARRILEAN

Altak: Jaiotzak: 19, eta kanpotik etorriak: 58
Bajak: Hildakoak: 12, eta herritik joanak: 48
Biztanle kopuru orokorra: 16.244 bizilagun.

Joski.

. LENTZERIA ARROPA
 . HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
 20280 HONDARRIBIA



14. FUENTERRABIA — Puerto

L. Roisin. fot. - Barcelona

